



LEMOA

atxubieto

Lemoako Udal Aldizkaria

Maiatza
2014

Un Lemoa más sostenible y con mayor protagonismo de la ciudadanía

Harro bizi euskaraz bideokliparen harrera itzela

2.orr

Zerga gutxiago kontaminatzen ez duten kotxeentzat eta familia ugarientzat

3.orr

Plan de Movilidad y Mapa de Ruido

4-5.orr

Auzolandegiak 2014. Trintxera berrietan lan egingo da

6.orr

Kultur agenda

7.orr

Elkarrizketa/ Ruth Linaza, sokatiran munduko txapeldunordea

8.orr





harro bizi euskeraz

“Harro bizi euskeraz Lemoan” bideoklipak harrera itzela

“Harro bizi euskeraz Lemoan” abestiaren bideoklipa sarean da martxoaren 5etik. Grabaketa egiteko herritarrak, zein elkarteak gonbidatu zituen Udalak eta erantzuna oso ona izan zen: Lemoako 30 elkarte, eragile eta kuadrillek hartu zuten parte grabaketan, guztira 400 pertsona baino gehiagok. Gainera, herritarrekin ere, norbanako legez, egin zen grabaketa eta bertara 300 pertsona inguru hurreratu ziren.

Bideoklipa sare sozialetan ere harrera ezin hobea izaten ari da. Izan ere, hilabeteko datuetan oinarrituta, 9.345ko irismena izan du orotara sare-sozialetako datuen batuketa aintzat hartuta. (Bideoklipa Lemoako Udalaren web-orrialdean, facebooken, twitterren, vimeon eta youtuben aurki daitezke).

Abestiaren karaokea ere sarean

Euskarazko abestien karaoke egile ezaguna dugu Gabi de la Maza. Horri esker “Harro bizi euskeraz Lemoan”



abestiak ere badu berea eta Lemoako Udaleko iturrien arabera berri harrigarria izan da. Oso pozik agertu dira herri mailako abesti batek horrenbesteko oihartzuna izaten ari delako.

Teletramiteak egiteko aukera
Posibilidad de realizar teletrámites

www.lemoa.net

[lemoa.net](http://www.lemoa.net)

Udaletxea / Ayuntamiento

94 631 30 05

94 631 34 59

Bake epaitegia / Juzgado de paz

94 631 25 52

Postetxea / Correos

94 631 40 64

J.B. Eguzkitza Meabe Eskola

94 631 32 28

Liburutegia-Ludoteka /

Biblioteca-Ludoteca

94 631 20 64

liburutegialemoa@euska.net

Osasun Kontsultegia /

Consultorio Médico

94 631 31 16

Botika / Farmacia

94 631 30 18

Giza-Zerbitzuak / S. Sociales

94 631 17 17

Jubilatuena etxea / Club de

Jubilados

94 631 41 73

Udal Kiroldegia /

Polideportivo Municipal

94 631 42 97

Taxi Zerbitzuak/Taxis

Inigo Garcia: 609 43 14 34

Aitor Cuadrado: 688 61 94 05

mugikortasuna

Udalak ibilgailuen gaineko zergan aldaketak onartu ditu

Lemoako Udalak hainbat ildo estrategikotan lanean jarraitzen du, herria geroz eta iraunkorragoa, erosoagoa eta herritarrentzako bizi-kalitate handiagokoa izan dadin. Zentzu horretan ibilgailuen gaineko zergan hainbat aldaketa onartu ditu, gutxi kutsatzen duten ibilgailuei eta familia ugariarentzat hain zuzen ere.

Onartu berri den ibilgailuen gaineko zergaren aldaketak gutxi kutsatzen duten ibilgailuei eta familia ugari hobariak ematen dizkie. Honen arabera, motor elektrikoa duten ibilgailuek %90eko hobaria izango dute zerga honetan eta motor hibridoa eta erregai gisa gasa erabiltzen dutenek (gas naturala, petroliotik likidotutako gasak zein bioetanola) berriz %70ekoa.

Neurri hauek ibilgailua matrikulatu den zerga-aldian izango du eragina, baldin eta eskabidea zergaren autolikidazioa egiteko garaiz aurkezten bada. Eskabidea ibilgailua matrikulatu ondoren aurkezten bada, hura

onartu eta hurrengo zerga-aldian izango du eragina.

Familia ugaridunen kasuan, hainbat irizpide hartu beharko dira kontutan. Alde batetik ibilgailuaren titularrak familia ugaritzat hartutako kidea izan eta bai eskatzailea zein familia unitateko beste kide guztiak Lemoan erroldatuta egon beharko dira. Beste alde batetik 16 zerga-zaldi baino gu-



txiagoko potentzia eta bost plaza baino gehiago dituzten ibilgailuak bakarrik hartu dira kontuan.

Ibilgailuen gaineko zerga honetan egindako aldaketak, 2015. urteko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko dira abian.

| Zerga-potentzia | Kategoria bereziko familiaren hobaria | Kategoria orokorreko familiaren hobaria |
|---|---------------------------------------|---|
| → 11,99 zerga-zaldiraino | %80 | %60 |
| → 12 zerga-zaldiraino 13,99 zerga-zaldiraino | %60 | %40 |
| → 14 zerga-zaldiraino 15,99 zerga-zaldiraino | %40 | %20 |





Más espacio público y peatonal

Antes de que finalice el año Lemoa contará con un nuevo PMSU (Plan de Movilidad Urbano Sostenible) que servirá de marco para profundizar en una cultura de movilidad, que dotará de las herramientas y medidas necesarias para mejorar la calidad de vida y el día a día de la ciudadanía en las calles del municipio.



El proyecto, que se encuentra en la fase de estudio por parte de las y los técnicos municipales, contempla, entre otras muchas medidas, la elaboración de planes específicos de espacios públicos y la priorización de acciones a favor de una movilidad peatonal.

También se prevé, siempre bajo el prisma de una evaluación medioambiental, el potenciar el uso de medios de transporte alternativos, como la bicicleta, además de la construcción de más plazas de aparcamientos para bicis que den solución a los problemas de sitios adecuados para las mismas. Básicamente, el plan propone devolver el espacio público al peatón, mejorar la movilidad no motorizada y sus conexiones (peatón, ciclista), facilitar la accesibilidad y favorecer el transporte público, enfocándolo en la mejora de la calidad de vida.

Un espacio público razonable, sostenible, dirigido al peatón, en el que sean las personas quienes tengan prioridad y no los vehículos, todo ello en un entrono urbano.

Mapa de ruido

En paralelo al PMUS, también se está trabajando en la fase final del Mapa de Ruido, que establecerá una zonificación acústica del municipio, señalando los puntos negros y propondrá las medidas necesarias para darles solución.

El plan propone devolver el espacio público al peatón, mejorar la movilidad no motorizada y sus conexiones (peatón, ciclista) y favorecer el transporte público.

hirigintza

Garapen eredu ezberdinak eta jasangarriak

Aurten ere Lemoako Udalak hirigintza jardunaldiak antolatu ditu, herritarren artean gai honen inguruko ezagutza handitzeko asmoarekin. Aurreko urtean hasitakoaren jarraipena izango dira jardunaldi hauek eta partaidetza zabala izatea espero da.

Lehen jardunaldia Elizondoko Kultur Gunean ospatuko da, maiatzaren 29an, 19:00etan. Eredu berri batean oinarritutako hirigintza proiektuez mintzatuko da, non herriaren parte-hartzea alde batetik eta haurrak parametro eta eragile bestetik izango dira landuko diren gaiak. Ekainaren 5ean, Jubilatuen gaineko aretoan 19:00etan, jasangarritasuna izango da gai nagusia, bertan, hirigintza arloan herritarren garapena eredu eta baldintza jasangarriak errespetatuz gaiak jorratuko dira. Jardunaldiak ekainaren 12an egingo den topaketarekin bukatuko dira, hirigintza generoaren ikuspegitik gaia landuko delarik.




Baden berria Lehendakari Agirre kaleko sarreran

Lemoako Udalak BI-635 errepidean Lehendakari Agirreko sarreraren parean Igorreko norakoan baden berri bat jarriko du. Errepide tarte horretan ibilgailuak abiadura handian datoz eta ugariak izan dira bertan izandako istripuak azken aldian. Zonalde horretan gainera, Lehendakari Agirre kaleko sarrera dago eta 100 metro-tara haurtzaindegia, eskola publikoa eta udal Kiroldegia aurkitzen dira. Abiadura moteltzeko eta zonaldean segurtasuna handitzeko Udalak errepidean badena jartzea erabaki du.



laz hasitakoa sakonduz

2014ko Auzolandegietan, orain arte aurkitutako lubakien mantenuaz gain, berrietan ere egingo da lana. laz, espero zirenak baino gehiago agertu ziren eta.

2014ko Auzolandegietan lubakietan zentratuko da lana gehienbat, aurreko urtean aztertu zen gunea garbitu eta gero, espero zirenak baino lubaki gehiago agertu baitziren. Udaren eta "Lemoatx 1937" batzorde herrikoiaaren ustetan, aurkikuntza honek, herriarentzat eragin eta garrantzi gehiago eduki dezake. Horregatik, aurkitutako lubakien mantenua egiteaz gain, beste gune berri baten azterketari ekin nahi zaio.

Eremu berria, aurreko gunearen jarraipena da, pare-parean daude. Lemoatx lubakiz inguratuta dago eta apurka gehienak ateratzea da helburua, horretarako puntu desberdinetan induskatu beharrean aurkitutako lubakietan egingo da jarraipena. Azken 76 urte hauetan, naturak guztiz estali ditu lubakiak baina argazkian marraztuta ikusten den moduan, azaleko ikusketa bat egin daiteke.



1937ko maiatzean eta ekainean bataila gogorra izan zen Lemoatxen eta horren zenbait lekukotasun fisiko aurki ditzakegu: batailan hildakoen gorpuak, bonben eta gainerako armamentuaren hondarrak, lubakiak, etab. Auzolandegietan lubakien parte bat berreskuratuko da eta gailurreko baseliza zaharberrituko da. Gerra zibilaren ondoren eraikitako baseliza eta gurutzea bando faxistaren sinbolo eta gurtzako toki gisa eraiki ziren. Gaur egun, baseliza ez da gurtzarako erabiltzen eta oso egoera txarrean dago. Eraikina atondu eta garbituko da, esanahi ideologikoa aldatuz eta aterpe publiko bihurtuz.

Aranzadi Zientzia Elkarte, indusketaren arduradun

Lanak aurrera eraman ahal izateko eta dena behar den moduan ateratzeko, beharrezkoa da, auzolaneko pertsonen gain, gaiak aditua den pertsona baten presentzia. Aranzadi Zientzia Elkarteko teknikari bat izango da indusketaren zuzendaria eta aldi berean, bertara hurbiltzen den pertsona edo talderen antolatzailea. Honetaz gain, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskuetan geratuko da 20 egun hauetako dokumentazioa eta lan erregistroaren erredakzioa.

METODOLOGIA: Sasiak garbitzeko makina pasatu eta gainerako azala garbitu nahi da. Ondoren, aitzur, pala eta pikotxak erabiliz, jausi eta mugituko harriak eta lurra zuloetatik aterako dira. Behin lubakien zoru errealerara helduta, paletena eta erratz buruak eskuan hartuta, indusketa lan zehatz eta delikatueta joko da bertan agertuko den materiala ahalik eta gutxien hondatzeko.

Gozatu zure uda!

Info+: www.lemoa.net

2014ko udarako programazioa gustu guztietarako jardueraz beteta dator, kultura, dibertsioa, prestakuntza eta elkartasuna uztartuz.

Udaleku irekietan (ekainaren 23tik uztailaren 4ra) parte-hartze aktiboa bultzatu, naturarekiko errespetua bermatu, euskararen erabilera sustatu, haurren arteko lana eta integrazioa landu eta Lemoako ingurune hurbila ezagutaraziko dira.

Uda gaztea: 5 eguneko irteera antolatuko da ekainaren 30etik uztailaren 4ra; Hondarribin hasi eta Gipuzkoako kostaldean zehar ibiltzeko aukera paregabea.

Bizikletaz mugitu: mugikortasuna bultzatzeko asmoarekin, bizikletaz 7 eguneko irteera egingo da Done Jakue bidera, uztailaren 7tik 12ra.

Uztailaren 7tik 18ra **Ludoteka Udal Igerilekuetara** mugituko da eguraldi ona egingen duen egunetan.

Bestalde, 16 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzenduta, abuztuaren 20tik 28ra, **Europar Murgildu** ekimena egingo da. Bidaia hau, gazteentzako mugikortasun plan baten barruan kokatzen da. Ekintza honen helburua Europarekiko eta era berean bere biztanleekiko harremanak lantzea eta egun dauden aukerak ezagutaraztea da.

Aurten ere, **Auzolandegiak** egingo dira. Lemoako Memoria Historikoaren berreskuratze-lanetan kokatzen da egitasmoa. Aurkitutako trintxera berrien

berreskurapena izango da uda honetako helburu nagusia. Lehenengo txanda, uztailaren 16tik 30era, eta bigarrena, abuztuaren 1etik 15era izango da.

MERCADO DE SEGUNDA MANO

El 14 de junio, en Elizondo, se celebrará el primer mercado de segunda mano de Lemoa, con el que se fomenta la reutilización. Se podrá vender cualquier objeto, como bicicletas, electrodomésticos, muebles, calzado, etc...¡Ánimate y participa!

Inscríbete del 2 al 11 de junio en el Ayuntamiento.

PON TU FIRMA EN LAS FIESTAS

Ya está abierto el plazo para el Concurso Local del Cartel de Fiestas de Lemoa. Se podrán presentar los trabajos hasta el 20 de junio, en diseño libre, formato A4 y con el único requisito que deberá llevar la inscripción "LEMOAKO JAIK 2014".

EUSKAL JAIA

Ekainaren 7an Lemoako Euskal Jaia ospatuko da. Aurten euskal mitologiari oinarrituko da. Egitaraua: triki poteoa, bazkaria eta ostean, kalejira Arraibitik Elizondora, Orritz Gazte Elkartearen eskutik.

SAN JUAN SUA

Ekainaren 23an San Juan sua izango da, Tallerretan. Umeentzako ekintzak eta jolasak egongo dira. 20:00etan sua eta parrilladaren momentua izango da.

Ekainak 17 de junio (martes / martes)

Hitzaldia / Charla

"BERE SENTIMENDU, BERE PENTSAKERA ETA BERE BIZIPENAK"

JOXE MARI AGIRRETXE
"Porrotx"

Hitzaldiaren helburua: heziketa ez formalek daukan garrantzia Nori zuzendua: guraso, hezitzaile eta gazteak 19:00etan Jubilatuen Aretoan

Objetivo de la charla: la importancia de la educación no formal Dirigido a: padres/madres, educadoras/os y jóvenes A las 19:00 en el Hogar del Jubilado

Lemoako Udala

euskal Jaia ekainak 7, zapatua

euskal mitologia

13:00 triki poteoa kalejira, tabernatik hasita

15:00 bazkaria Aretoa

18:00 kalejira jolalarik eta parrilla ostean, jolalarik Elizondora "Ortiz Garbe Elkartea"ren eskutik

"Euskal Jaia"ren aurkeztuak

Jubilatu bidaia

Aurreko urteetan bezala, bidaia urrian izango da, eta izena emateko epea ekainaren 10etik 20ra arte zabalik egongo da. Izen-ematea Udaletxeko Kultura Zerbitzuan izango da. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: NANaren kopia, eta errenta-aitorpenaren edo erretiro-pentsioaren ziurtagiria. 30 leku eskaintzen dira eta pertsona gehiagok izena emanez gero, zozketa egingo da eskatzaile guztien artean.



elkarrizketa

Ruth Linaza

“Emakume gutxi ari gara sokatiran, astoen lana dela uste du jendeak”

Ruth Linaza lemoarrak Gasteizko Badaiotz Taldean ari da nazioarte mailan lehiatzen. Azkeneko Munduko Txapelketan txapelkun ordea izan da.



Aukeratzeko dauden kirol guztiekin, nola aukeratu zenuen sokatira?

Ba bizitzaren kasualitateak dira. Egia esan, ez nekien sokatira existitzen zenik ere. Futbola utzi nuenean, Martina Txoaneok, ea trontzan egingo nukeen proposatu zidan. Nik baiezkoa eman eta trontzan hasi nintzen. Trontzako txapelketa baten, Jon Lapazaran nire entrenatzailea ezagutu nuen eta berak bota zidan Gasteizen sokatira egiteko proposamena. Onartu eta gaur arte!

Zenbat emakumek egiten dute kirol hau Euskadin? Eta munduko gainerako herrialdeetan?

Euskal Herrian emakume gutxi ari gara sokatiran zoritxarrez. Zortzi laguneko 3-4 talde aritzen gara azken urteotako txapelketetan. Oso zaila da emakumeak sokatira egitera animatzea hasieran eta jarraitzea gerora. Sokatira astoen lana dela uste de jendeak. Europa iparraldeko lurraldeetan, Suedia, Erresuma Batua edo Herbeerak bezalako herrialdeetan oso errotuta dagoen kirola da. Hegoafrikan edo Estatu Batuetan ere badago sokatira egiteko ohitura handia. Baina arreta handiena ematen duten lurraldeak ekialde urrunekoak dira. Japonia, Txina eta Taiwanen, itzelezko sokatira talde piloa daude. Itzelak dira.

Ez duzu pentsatu talde bat sortzea Lemoan?

Gasteizen bizi nintzen sasoiari hasi nintzen sokatira egiten baina etxera



Ruth dietetikan diplomatua da eta Laborategi Teknikaria. Egun, goi mailako zikloa ikasten ari da.

bueltatu eta oraindik bertako taldean jarraitzen dut, Badaiotz taldean alegia. Sokatira talde bat osatzea oso zaila da. Tiralari sasoi amaitu eta gero? Agian animatuko nintzake Lemoan talde bat osatu eta dakidan apurra besteei transmititzea. Zergatik ez?

Nolako da zuen prestakuntza?

Goma gainerako sokatira, neguan egiten den kirola da. Txapelketak, azaro abendu urtarril eta otsailean egiten dira eta irailan jadanik buru belarri sartuta gaude prestakuntza fisikoarekin. Urrirako sasoi puntu ona hartzea da helburua eta horretarako irailan, korrika, pisu, zirkuitu eta beste ariketen plangintza burutzen dugu. Pisu kategoriatan parte hartzen dugunez txapelketetan, (500 eta 540 kilo 8 emakumeren artean) dieta orekatu bat jarraitzen dugu.

Kirol ez-profesionala izanik, dirurik kostatzen zaizu?

Egia esan diru asko galtzen dugu batez ere entrenatzera joateko or-

duan. Norberaren poltsikotik ordaintzen ditugu gasolina eta bestelakoak eta hori ez digu inork ordaintzen. Lemoatik asteen hiru aldiz joaten naiz Abetxukora (Gasteiz) eta garestia da. Mundialetara joaten garen urteetan dirulaguntzak jasotzen ditugu baina mundialeko gastuak soilik ordaintzen dizkigute.

Zein da lehiatzen duzun orotzapean onena?

2012ko mundialean Taiwaneko talde erraldoiari irabazi izana da niretzako lortu izan dudana gauzarik handiena. Urte latza izan zen taldea mantentzeko orduan eta denboraldia horrela amaitzea itzela izan zen. Hunkitu egiten naiz oraindik pentsatu hutsaz. Talde profesional eta munduko indartsuena mendearen hartu genuen, talde apal apala izanda. Itzela izan zen lorpena.

